



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALA ERATZEAREN AKTA

BERTARATUAK

LEYRE GORDO CASTRO
JOSE M^a SARASOLA ETXEBERRIA
AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA
ENEKO ELOLA JAUREGUI
MIREN JOSUNE ZUBELDIA
ETXEBERRIA
IGO EIZAGIRRE SAEZ
OIER MINTEGI ZEBERIO

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2015eko ekainaren 13ko 09:00 direnean, Hauteskunde Araubide Orokorren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 195. eta 196. artikulua, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, 37. artikulua betez, eta, 2015eko maiatzaren 24ko udal-hauteskundeen emaitzak kontuan hartuta, alboan aipatzen diren zinegotzi hautetsiak bildu dira, Tokiko Udalbatzaren kide guztiak ordeztu eta Lizartzako Udalbatza berria eratzeko, bilkuraren fede ematen duen idazkariarekin eta kontu-hartzailearekin batera.

ADIN-MAHAIA ERATZEA

Jarraian, Bilkurari hasiera eman ondoren, udal-idazkariak Hauteskunde Araubide Orokorren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 195. artikulua irakurri du, eta horretan xedatutakoari jarraiki, Adin Mahaia eratu da.

Horretarako, idazkariak hautetsi bakoitzari deitu dio, haren nortasuna egiaztatzeko.

Adin Mahaia honako hauek osatu dute: JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA, 58 urtekoak, hautetsi zaharrena izaki mahaiko presidente izango denak, eta OIER MINTEGI ZEBERIO, 24 urtekoak, hautetsi gazteenak.

UDALBATZA ERATU AURREKO EGIAZTAPENAK

Adin Mahaia eratuta, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, 36.2 artikuluan xedatutako neurri zehatzak hartuta, adierazi da Idazkaritzak eta Kontu-hartzailetzak zinegotzi hautetsien esku utzi dituztela udal-kutxan eta banku-entitateetan Udalak ezarritako diru eta balioen frogagiriei dagokien dokumentazioa eta, halaber, Udalbatzaren Ondasunen inbentarioari dagokion dokumentazioa.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Ondoren, Mahaiko idazkariak zinegotzi hautetsien nortasuna frogatzeko agiri guztiak irakurri ditu, haiek egiaztatuz, eta zinegotzi bakoitzak bere nortasuna frogatu du.

Jarraian, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen, apirilaren 2koaren, 75.7 artikuluan aipatzen diren adierazpenak egin dituztela egiaztatu da, eta Adin Mahaiko presidentek adierazpenaren ondoren sortutako bateraezintasunen bat ote duten galdetu die zinegotzi hautetsiei; haien aldetik ez da halakorik baieztatu.

Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 195.4 artikulua, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, 37.4 artikulua eskatutakoa betetzen dela ikusita, eta bilkura horretara zinegotzi hautetsien gehiengo absolutua bertaratu dela kontuan hartuta, Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 108.8 artikuluan aurreikusitako lege-eskakizuna —zin egitearena— betetzeari ekin zaio.

Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 195. artikulua xedatutakoa beteta, Mahaiko presidentek eratu jo du Lizartzako Udala, 2015eko maiatzaren 23ko udal-hauteskundearen ondoren.

ALKATEA HAUTATZEA

Ondoren, udal-idazkariak Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 196. artikulua irakurri du, eta Udalbatzaren alkate-presidentea izendatzeari ekin dio.

a) Alkatetzarako hautagaiak izendatzea

Gero, Adin Mahaiko presidentek zerrendaburu diren zinegotzietan alkate izateko beren hautagaitzari eutsi egingo dien ala erretiratu egingo duten galdetu die, eta hau adierazi dute:

— LEYRE GORDO CASTRO (EH BILDU).

Jarraian, Alkatetzarako hautagaiak izendatzeari ekin diote.

b) Bozketa-sistema hautatzea



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Hautagaiak izendatu ondoren, mahaiko presidentek zinegotzi hautetsiei bozketa-sistema hautatzeko eskatu die (Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 101. artikulua), alkatea hautatzeko.

Bozketa-sistema hautatuta, hautesle bakoitzari Alkatetzarako hautagaien izen-abizenak datozen txartel bat eman zaio, eta X batez botoa ematen dioten hautagaia adierazi beharko dutela azaldu zaie.

Ondoren, zinegotziek isilpeko bozketa egin dute, eta Adin Mahaiko presidentek dei egin die, hautes-ontzi batean botoa ezar dezaten; Adin Mahaiko kideak dira botoa ematen azkenak.

Bozketa amaituta, emandako botoak zenbatu dira; Adin Mahaiko presidentek ozen irakurri ditu, eta hau izan da emaitza:

EMANDAKO BOTOAK: 7
BOTO BALIODUNAK: 7

Hauteskunde-txartelak honela banatu dira.

— LEYRE GORDO CASTRO andrea., EH BILDU alderdiaren hautagaia, 7 botorekin.

Ondorioz, eta bozketaren emaitza ikusita (7 zinegotzi eta 7ko gehiengo absolutua), Adin Mahaiko presidentek, 09:30ak direnean, EH BILDUko zerrendaburu den LEYRE GORDO CASTRO andrea izendatu du alkate-udalburua.

KARGUAZ JABETZEA

LEYRE GORDO CASTRO andreak onartu egin du alkate izendapena. Hortaz, Udalbatzaren aurrean, zin egin du kargua beteko duela, horrek dakartzan betebeharrak guztiekin. Beraz, LEYRE GORDO CASTRO jabetu da Alkatetzaz.

Mahaiko presidentek aretoko presidentzian jartzeko eskatu dio LEYRE GORDO CASTRO andreari, eta desegin egin da Adin Mahaia.

Ondoren, LEYRE GORDO CASTRO alkate-udalburuak Udalean ordezkari izan da, indarren ordezkariari eman die hitza eta, azkenik, berak hartu du, eta eskertzeko hitz batzuk zuzendu dizkie zinegotziei.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Jarraian, LEYRE GORDO CASTRO alkate-udalburuak bukatutzat eman du bilkura 9:30etan, eta horren fede ematen dut nik, idazkariak.

ALKATEAK
Izpta: Leyre Gordo Castro

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia